



Procedimientos selectivos para el ingreso y acceso al cuerpo de Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas

Resolución de 6 de marzo de 2018 y Resolución de 10 de mayo de 2018
de la Dirección General de Recursos Humanos

Euskara

1. Testu analisia

Uste dut argazkiak ere egin zituztela, oso gertakari sonatua izan zen, eta egunkariak ere luze jardun zuten hartaz. Biharamonean eta sekulako zorabioan ibili ninduten, hainbeste argazki eta galdera, bateko nola gertatu zen eta besteko zer pentsatu nuen halako larritasunean, erdia ere ulertzen ez niela. Nik artean sei urte nituen. Obispuaren muturpean gertaturiko miraria alajaina! *Te Deum* eta guzti egin zuten, eta txokolatea eman zidaten, eta ardo goxoa ere bai, elizakoa... Atso guztiek besarkatu nahi ninduten, haiek estutuak...! Eta nik berriz Morikorekin aldegin nahi, eta Moriko nonbait izkutatua edo jende artetik ihes egina... Gero Teileri Berriko amonari burutik egin zitzaion eta hor hasi zait galtza puska bat urratzen, erlikia dela hura eta amona zoro haiek zakur amorratua baino okerrago erlikia nahi dutela etxera eramanean eta bruxatik tira eta urra, ia larrugorritan utzi ninduten... Nik ez nuen ezer ulertzen. Obispua etorria zen kanpai berria estrainatzen zelako gure elizan.

Gure herriko eliza txipia eta pobrea da. Oraindik orain egona naiz barruan, Rufinoren hiletetan. Betetzen da hiletetan. Berogailuak ezarri dituzte. Bezero zaharrak dituelako seinalea. Gizarajoa Rufino, joana haiz denek hika egiten duten erromerira... Tira, utz ditzagun kontu tristeak. Azken karlistadan, liberalek gaztelu bezala hartu zuten eliza, handik ederki mendean baitzeuzkaten inguruko zelaiak eta bideak. Hilabete edo egin omen zuten, eta negu gorria, eta berotu egin nahi, eta sua egin behar, eta zer egingo eta zutabeei aizkoraz ezpalak kendu eta haiekin. Mehetu dituzte sobra ere zutabeak eta teilatuari hautsi zaizkio hankak eta lur jota hor akatu omen zuen elizak liberal mordo bat... Hori ere miraria izango zen noski, zeruko zigorra edo...

Teilatua ez ezik kanpandorra eta kanpaia bera ere berritu dute noizbait eta Obispua bertan eta Gobernadorea ere hantxe izango zen noski eta antzeko eztiuliak.

Orduan parroko jauna, Don Anakleto, ibili zen baserriz baserri umeak biltzen. Kandela bana eman eta plazaraino kantari eramanean gintuen. Han eztiuli guztiak heldu arte zain eduki gintuen eta bitartean tabernan sartu zen bera freskatzera.

Ni ate ondoan nengoen leku on bat hartu ahal izateko koruan kantarien ondoan, beti gustatu izan zaidalako ongi kantatzen entzutea, neu astoa kitarra jotzen baino aldrebesagoa banaiz ere. Hasi zuen kanpai berriak danga eder batean hamabiak jotzen, eta denak liluratuak kanpaiaren durundioak hankazolan egiten zigun kilimarekin, eta hamaikagarreneko horretan hor entzuten da egundalako suntsitzea eta mundu guztia orruka izaturik kanpaiak dorretik behera egin duelako. Jendeak ikara handia hartuko zuen, eta agian Gobernadorearen andrearen soineko luzea hartuko zuen azpian kanpaiak eta emakumea korrika hasitakoan urratu eta ipurdia agerian utziko zion, nik ezin jakin.

Gero kontatu zidatenez lehen izua pasa eta karraxiak isildu zirenean hurbildu ziren pixkanaka kanpai ingurura, eta orduantxe jo zuen kanpaiak hamabigarrena. Miraria zela eta hasi ziren espantuka eta denak elizan sartu eta txoratuak bi toneladako kanpaitzarrak inor hil ez zuelako eta lurrean zegoela hamabigarrena, mezarakoa, jo zuelako. Hasi omen zaie ba Don Anakleto sekulako sermoian, zainak eten beharrean «Jainkoaren abisua izan dugu!» ari zela Obispuaren aurrean luzituz eta sartzen omen da Moriko tximista baino areago elizan, igotzen ditu eskailerak salto bitan, heltzen dio sotanatik Don Anakletori kulpitutik behera ekarri nahi duela eta hor sortu omen dute farregarrizko iskanbila parrokoa «Deabruaren amorrazioa da hau!», Morikok sotanari uzten ez diola eta sakristaua «Parte gaiztoko hori!» zakur gaxoari bizkarra hautsi nahian joka. Askatu beharko sotana bizia galduko ez bazuen eta ihesari eman dio Morikok kandelak itzaltzeko txantxila astintzen duen sakristaua atzetik dakarrela heriosuhar.

Sakristaua atarian mehatxuka gelditu zaio-larik, haiek lanak Morikorenak: kanpai ertze-ko lurra eginahalean harrotzen aurrena, sakristauari zaunka minduan gero, laisterka egin santujale harenganaino berriz, begiak malkotan urrikaldu ondoren, kanpai ertzeraino etor erazi noizbait. Harrotu zuen beste pixka bat sakristaua ondoan zuela noski, nik ez nuen hura ikusi, asmatzen ari naiz baina hala behar zuen izan. Harrotu zuen ba ozta

100 argi izpi bat kanpai barrura sartzen uzteraino,
eta lehen ametsetan bezala entzuten nituen
zaunka urrun haiek ozen entzun nituen eta
ezpainak zirrikitu hartara hurbilduz murmu-
riatu nuen «Moriko, Moriko!».

105 Hamaikagarrena jota kanpaia amildu ze-
nean, espartina lotzen makurtua nintzen or-
duantxe. Ilunpea egin zitzaidan lurrikara ba-
tean. Kanpaiak azpian harrapatu! Ikaratu nin-
tzen ni ere... Zutitzerakoan hamabigarrena jo
nuen buruarekin. Entzungo zuten bai, ni kas-
110 kagogorra izan naiz txipitatik... Kaskagogorra
naiz baina hartu nuen kaskarrekoarekin erdi
zorabiatuta erori nintzen, eta itxitura hartan
itoko nintzen Morikogatik izan ez balitz. Ho-

115 rregatik esaten dut nik mirari batek ez baina
zakur azkazalek salbatu nindutela.

120 Atera nintzenean azkazal guztiak hautsiak
eta eskuak odoletan nituen Morikok bezala
lurra harrotzez. Itolarrian nengoen, kanpai
barruan ezin arnas harturik dena izerditua,
ahuldua. Ilunpetik irten berrian itsutu egin
behar izan nituen begiak, eta konturatu ordu-
ko denak besarka eta Obispua bera bedeinka-
zioka eta erropatik tiraka erlikia eramateko eta
125 miraria zela eta nik al dakit. Mintxuria egin
zitzaidan orduan, alegia konortea galdu nuela.

Koldo Izagirre

Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak, 1991

[759 hitz, moldatua]

Testua irakurri ondoren, bete itzazu ondoko puntu hauek:

1. Egin ezazu testuaren laburpena –80 bat hitzekoa– narrazioaren hari nagusia eta aintzat hartu beharreko xehetasunak egokiro bilduz.
2. Testu idatzia izan arren, ahozko euskararen ezaugarri ugari biltzen ditu testuak: adibide zehatzak emanez, azal itzazu narrazio honetako “ahozkotasunaren” baliabide estilistiko, morfosintaktiko eta pragmatikoak.
3. Justifika ezazu testuaren pasarte hauetako aditz aldia:
[16 - burutik egin zitzaion eta hor hasi zait...]
[21 - etorria zen; 24 - egona naiz; 27 - joana haiz]
[38 - miraria izango zen; 61-65 - hartuko zuen, utziko zion]
[73-77 - hasi zaie – ari zela – sartzen da]
[85 - galduko ez bazuen]
[...]
4. Hizkuntza Eskola Ofizialetako kurrikulua eta Europar Markoa aintzat hartuz, egin ezazu testu honen ustiaketa didaktiko baten proposamena, ikasleen maila eta helburuak egokiro zehaztuta.



Procedimientos selectivos para el ingreso y acceso al cuerpo de Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas

Resolución de 6 de marzo de 2018 y Resolución de 10 de mayo de 2018
de la Dirección General de Recursos Humanos

Euskara

2. Entzunaren ulermen proba

Irratsaio baten pasarte bat entzungo duzu orain. **5'20"** dirau grabazioak eta **bi aldiz** emango zaizu entzutera, entzunaldi bien artean **30 segundoko tarte**a utzita.

Entzun eta gero, idatz ezazu entzundakoaren laburpena (**200-250 hitzetan**) ideia nagusiak zein datu zehatzak egokiro jasota.

Entzun ahala, orri honexetan hartu ahal dituzu oharrak, baina idatz ezazu gero zeure testua azterketarako paperean.



Procedimientos selectivos para el ingreso y acceso al cuerpo de Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas

Resolución de 6 de marzo de 2018 y Resolución de 10 de mayo de 2018
de la Dirección General de Recursos Humanos

Euskara

3. Itzulpenak

Itzulpena

Neurriz gairik talentua duenari deitzen zaio jenio; bereziki arte edo zientzietarako abildade paregabeak dituenari; tramankulu edo makina ikusgarri bezain txundigarriak asmatzeko gai denari; eta, noski, inteligentzia mirezgarri baten jabe denari, gizadiaren nondik norakoan zedarri esanguratsua ipintzeko gauza den norbanako salbuespeneko horri.

Adiurre zakarrekoa eta xelebrea dela esan ohi da. Fisika edo arkitektura izan, pintura edo musika izan, bizitzaren funts bilakatuko zaion jarduna aurkitzen duelarik, obsesioz ekiten diola lanari, ororen gainetik jarritz, eta bere afizio-ofiziozko misio horretan itsututa gordetzen dituela bestela bildutako atsekabeak.

Jenialtasunaren ispilu, baldintzarik txarretan ere bereari eutsiko dion gizaki —ia-ia beti gizaseme— paradoxiko, egoskor, trauskil bat irudikatzen zaigu sarritan, erabat bere senean ez dirudien jakintsu despistatu eta maniaz jositakoa.

Alabaina, sekulan inork ez bezala sentitzeko, ulertzeko, arrazoitzeko senak egiten du jenioa desberdin eta pribilegiatu; ezaugarri genetiko-fisiologikoek baino gehiago, arau finkatua ipurdiz gora botatzeko nekaezintasunak; edo, nahi bada, munduari beste ikuspegi batetik erreparatzeko ahalmenak.

Topikoak izan, zehatz itxurako kalifikazioak izan, hein handi batean azken hamarkadotan ezker-ezkerrari ipini izan zaizkion etiketak dira guztiak. Ez erdizka denari eta ez bietara moldatzen denari, baizik eta beti, denetarako, ezker alboko gorputz atalak (begi, belarri, hagin, esku nahiz hanka) hobesten dituenari nabarmendu izan zaizkion nolakotasunak, izen handiko neurologo, psikiatra eta ikerlariak esanda.

Garbiñe Ubeda
Mila ezker, 2009

198 hitz (moldatua)

Traducción

Mi impresión es que toda la condición humana se expresa en una piñata. Si viniera un marciano y observara la complejísima trama que se dispara cuando se rompe el cartón y cae la lluvia de golosinas, entendería todos nuestros anhelos, vicios, compulsiones y represiones. La euforia y la tristeza. Vería al niño que acumula golosinas hasta que las manos no pueden retener más; al que golpea a otro para ganar ventaja y tiempo sobre un recurso limitado; al padre que alecciona a uno para que comparta su excesivo botín; al niño llorando en la esquina abrumado; los intercambios en el mercado oficial y en el mercado negro, y las sociedades de padres que se organizan cual microgobiernos para evitar la tragedia de los comunes.

En la batalla temprana por la propiedad se ensayan también los principios del derecho. Entender la propiedad ajena es una manera de descubrir que hay otros individuos.

Mariano Sigman

La vida secreta de la mente. Debate, 2016

151 hitz (moldatua)

